



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILEKO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEAREN EKAINAREN 21eko 1/2006 ARGIBIDEA, ADIN TXIKIKOA JURIDIKOKI BABESTEKO LEGE ORGANIKOAREN 13.5. ARTIKULUA APLIKATZEARI BURUZKOA.

Uztailaren 28ko 26/2015 legeak, haur eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duenak, berrikuntzak sartzen ditu adin txikikoen eskubideak arautzeko marko nagusian, hots, Adin Txikikoaren Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 lege organikoan, kode zibila eta Prozedura Zibilaren legea partzialki aldatzen dituena.

Aipatutako 1/1996 lege organikoaren 13. Artikuluan atal berri bat sartzen da, sexu-askatasun eta osotasunaren kontrako delituak, gizakien salerosketa eta adin txikikoen esplotazioa direla-eta; izan ere, artikulu horrekin betetzen dira Espainiak, haurrak esplotazio eta sexu-abusuetatik babesteari buruzko 2007ko urriaren 25eko hitzarmena eta 2011ko abenduaren 13ko 2011/93/UE Parlamentu eta Kontseilu europarraren zuzentaraua, sexu-abusuen, adin txikikoen sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren kontrako borrokari buruzkoa, berrestean bere gain hartu dituen konpromisoak.

13. artikulua 5. atal berriak hau xedatzen du:

“5. Sexu-askatasun eta osotasunaren kontrako delituen batengatik (sexu-erasoa eta abusua, sexu-jazarpena, sexu-erakundearen eta probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa eta adin txikikoen ustelkeria) eta gizakien salerosketarengatik sententzia irmoaren bidez zigorra jaso ez izana izango da adin txikikoekin ohiko harremana izatea dakarten lanbide eta jardueretan aritzeko baldintza. Horretarako, lanbide edo jardura horietan ari nahi duenak zirkunstantzia hori egiaztatu beharko du, delitu horiek egin dituela ukatzeko sexu-delitugileen Erregistro Zentralak emandako ziurtagiri baten bidez”.

Argibide honek legezko exigentzia berriak dakartzan gai berehalakoenei eman nahi die erantzuna, abenduaren 11ko 1110/2015 errege dekretuak, Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala arautzen duenak, xedatzen duena ere kontuan hartuta. Testuinguru honetan, argibidean azaltzen diren formula eta neurrietako batzuek unean-unean gaurko egoerari ematen diote erantzuna eta etengabe baloratu eta berrikusiko dira, egokiak diren egiaztatzeko.

1. HELBURUA

Adin txikikoa juridikoki babestearen lege organikoaren 13.5. artikulua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko unibertsitateaz kanpok ikastetxe publikoetan adin txikikoekin ohiko harremana izatea dakarten jardueretan aritzeko, beteko dela bermatzeko erregulazioa ezartzea du argibide honek helburu.

Halaber, eranskin gisa adierazpen arduratsuaren eredua, adin txikikoa juridikoki babestearen eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimenaren urtarrilaren 15eko 1/1996 lege organikoaren 13.5. artikulua betetzeari buruzkoa, gehitzen du.

2. APLIKAZIO EREMUA

Argibide honetan azaltzen diren neurriak ondorengo ataletara atxikitako pertsonal irakasleari eta ez irakasleari aplikatuko zaizkie:

- a) Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak.
 - Pertsonal irakaslea.
 - Administrazio Orokorreko pertsonala.
 - Hezkuntza-pertsonala.
- b) Adin txikikoekin ohiko harremana izatea dakarten ikertzeko eta irakaskuntzari laguntzeko zentroetako lanpostuak.

3. EREMU OBJEKTIBOA

Argibide hau aurreko atalean adierazitako pertsonalari, funtzioetan aritzeko orduan normalean adin txikikoekin harremana badu, aplikatuko zaio. Parlamentu Europarraren eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 13ko 2011/92/UE zuzentarauak, sexu-abusuen, adin txikikoen sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren kontrako borrokari buruzkoak eta 1/1996 lege organikoaren 13.5. artikulua bidez zuzenbide espainolera pasa izan denak, xedatutakoaren arabera eta uztailaren 28ko 26/2015 legearen bidez egindako aldaketaren ondoren, adin txikikoekin ohiko harreman zuzenak izatea dakarten lanbide edo jardura gisa definituko dira adin txikikoekin normalean harremana izatea eskatzen duten horiek.

Beraz, publikoari, adin txikikoak barne, arreta emate hutsa baino lotura handiagoa exijitzen da, harremana ohikoa eta zuzena izatea, eta ez zirkunstantzial hutsa, eskatzen baita. Dena den, adin txikikoa babesteko goragoko interesa kontuan hartuta, adin txikikoarekin ohiko harremana izatearen kontzeptuaren interpretazioak esanahi desberdinak izango ditu.

4. LANPOSTU ZERRENDAK

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak zehaztu eta identifikatuko du zeintzuk diren aritzeko adin txikikoekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuak, lanpostu-zerrendetan, plantiletan edo funtzio berarekin erabiltzen den beste edozein tresnatan, eremu honetako lanpostuetan egiaztapen negatiboaren betekizuna definituta eta gaineratuta gera dadin.

5. DELITU HORIEK EGIN EZ IZANAREN ZIURTAGIRIA EGIAZTATZEA SARTZEKO DEIALDIAN.

Enplegura aldi baterako eta behin-betikoz sartzeko deialdietan eta aukeratze-proben prozeduretan, oinarrietan beretan sartuko dira baldintza berri hau eta berau egiaztatzeko bideak, urriaren 30eko 5/2015 legegintzako errege dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legeak 56.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horretarako, lege organikoan ezarritako terminoetan sententzia irmoaren bidez zigorra jaso ez izanaren aitortpen arduratsu bat aurkeztea exijituko zaie, lanpostuaz jabetu aurretik, lanpostu horietako edozein hartu nahi duten lehiatzaileei, baita Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsultatzeko haien baimena ere.

Interesatuak Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsultatzeko baimenik eman ezean, delitu horiek egin ez dituztela egiaztatzeko Erregistro horren dokumentazioa zuzenean



aurkeztu beharko dute, oinarrietan ezarritako epeetan eta, beti ere, lanpostuaz jabetu aurretik.

Halaber, baldintzak ezarritako epeetan ez egiaztatzearen ondorioak jakinarazi beharko dira deialdietan.

6. EREMU OBJEKTIBOKO LANPOSTUEI LOTUTAKO PERTSONALAK DELITU HORIEK EGIN EZ IZANA EGIAZTATZEA.

Sexu-askatasun eta osotasunaren kontrako delituengatik zigorra jaso ez izanaren exigentzia duten lanpostuetako bat *betetzen duten edo titularrak diren* pertsonak egiaztatu beharko dute delitu horiengatik sententzia irmoaren bidez zigorra jaso ez izana.

Baldintza betetzen dela egiaztatzeko, aitorten arduratsu bat, behar den organoak datuak Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsultatzeko berariazko baimena sartuko duena, ere aurkeztu ahal izango da.

Aitorten horren tramitazioa sinplifikatze aldera, argibide hau argitara ematen den datan zerbitzuak ematen dituen pertsonalak irakaslegunea hezkuntza-atariaren bidez bete beharko du. Horretarako, espazio murriztura (erabiltzaile eta pasa-hitzen bidez) sartuko da eta jarduera hau aipatutako aitortena Administrazioari aurkeztearen baliokidetzat joko da ondorio guztietarako.

Atal horretan erregistratuta ez dagoen edo emandako pasa-hitza ez dakien pertsonal irakasleak edo ez irakasleak izango du erabiltzaile gisa lotura honen bidez balioztatzeko aukera:

https://www5.hezkuntza.net/appcont/control_acceso/irakaslegunea/index.html

Horretarako, argibide honen eranskina 2016ko ekainaren 30a baino lehenago betetzea exijitzen dela jakinarazi beharko diote pertsonal-organoei beren pertsonalari. Halaber, eginbehar hori ezarritako epeetan ez betetzearen ondorioak jakinarazi beharko dituzte.

Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsultatzeko baimenik eman ezean, aipatutako Erregistroaren ziurtagiria zuzenean, 2016ko ekainaren 30a baino lehenago, aurkeztu beharko du enplegatuek.

Halaber, zerbitzuak ematen argibide hau argitara eman ondoren hasten den pertsonalak ikastetxean hasi aurretik eta adierazitakoaren arabera bete beharko ditu aitortena eta baimena, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsultatzeko baimena ematen ez duen kasuetan izan ezik. Kasu horietan zuzenean aurkeztu beharko du aipatutako Erregistroaren ziurtagiria.

7. ZIURTAGIRIA LANPOSTUAK BETETZEAN EDO BESTE LANPOSTU BATERA MUGITZEAN EGIAZTATZEA.

Delitu horiek egin ez izanaren ziurtagiriaren exigentziak behin-behineko edo behin-betiko lanpostuak betetzeko deialdi guztietan agertu beharko du: lehiaketak, zerbitzu-eginkizunak eta lanpostuak betetzeko edo atxikitzeko beste prozesu batzuk.

Halaber, lanpostu horiek behin-behineko atxikipenean betetzeko edo berrietan berriro hasteko exijitu beharko da.



Horretarako, pertsonala kudeatzeko organoek baldintza hori exijituko diete lanpostu horietako edozein bete nahi duten pertsoneri.

8. DELITU HORIEK EGIN EZ IZANAREN ZIURTAGIRI HORI LAN POLTSETAN SARTUTA DAGOEN PERTSONALAK EGIAZTATZEA.

Lanpostu horietan aritzeko ziurtagiri hori exijitzen dela jakinaraziko zaio lan-poltsetan sartuta dagoen pertsonal guztiari. Halaber, aitorten arduratsua eta argibide honi gaineratutako baimena betetzea eskatuko zaie, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ezartzen dituen egoeretan, epeetan eta eran. Baimen hori poltsa kudeatzeko sistemari gehituko zaio. Poltsan dagoen pertsonarekin kontratu edo izendapen bat formalizatuz gero egingo da Erregistro Zentralean kontsulta; bestela, ez.

Kontsulta hori egiteko baimena Administrazioari ematen ez dion pertsonalak ziurtagiri gaurkotua aurkeztu beharko du kontratazioaren unean.

9. SEXU ASKATASUN ETA OSOTASUNAREN KONTRA DELITUAK EGIN IZANA ADIERAZTEN DUTEN ZIURTAGIRIEN KASUETAN EGIN BEHARREKO JARDUERAK

Ziurtagiriak sexu-askatasun eta osotasunaren kontrako delituren bat egin izana egiaztatzen badu edo delitu horiengatik sententzia irmoa dagoela ezagutzen bada, pertsona horri berehala kenduko zaio lanpostutik.

Pertsonal funtzionarioaren kasuan, eta Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bateratuak 81.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, delitu horiek egin izana egiaztatzen duen ziurtagiriak lanpostua behin-betiko uztea ekarriko du, berorretan aritzeko exijitutako baldintza bat ez betetzeagatik, eta aritzeko baldintzak betetzen diren eta hobekuntza profesionalik ez dakarren beste lanpostu batean birkokatuko zaio pertsona horri. Pertsona horrek exijitutako baldintzak betetzen dituen lanposturik izan ezean, nahitaezko eszedentzia-egoerara pasako da.

Bitarteko funtzionarioen kasuan, delitu horiek egin izanaren ziurtagiriak bitartekotasun-harremana desagertzea ekarriko du, geroago desagertu baitira izendatua izan zen lanpostu horretan aritzeko exijitutako baldintzak. Halaber, bajaran emango zaio argibide honen eremu objektiboari lotutako ordezkoen zerrendetan.

Lan-legepeko pertsonal finkoari dagokionez, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak pertsona horrek delitu horiek egin dituela ziurtatzen badu, lanpostutik kenduko zaio, berorretan aritzeko exijitutako baldintza bat ez betetzeagatik, eta aritzeko baldintzak betetzen dituen eta hobekuntza profesionalik ez dakarren beste lanpostu batean birkokatuko zaio. Pertsona horrek baldintzak betetzen dituen lanposturik izan ezean, kaleratze objektiboa erabakiko da, funtzioetan aritzeko gaitasuna geroago galdu izanagatik.

Halaber, mugarik gabeko edo aldi baterako lan-legepeko pertsonalaren kasuan, ziurtagiriak sexu-askatasunaren kontrako delitu horiek egin izana egiaztatzen badu, kaleratze objektiboa egingo da, pertsona horrek berorren funtzioetan aritzeko gaitasunak geroago galdu izanagatik.



10. BAIMENA EDO DELITU HORIEK EGIN EZ IZANAREN EGIAZTAGIRIAK EZARRITAKO EPEETAN EZ ENTREGATZEAGATIK EGINGO DIREN JARDUERAK.

Sexu-askatasunaren kontrako delituak egin ez izanaren egiaztatzea exijitzen den lanpostu bat betetzeko deialdian parte hartzen duen pertsonak, baimena eta ziurtagiria oinarrietan ezarritako epeetan entregatzen ez baditu, ezin izango da nahi duen lanpostuaren jabe izan.

Era berean, ziurtagiri negatiboa nahitaez aurkeztu behar duen lanean ari den edo lanpostu baten titularra den langileak ez baditu baimena eta ziurtagiria aurkezten ezarrita dauden epeen barruan, lanpostutik kenduko dute lanpostu hori betetzeko eskatzen den betekizuna ez betetzeagatik.

Langilea karrerako funtzionarioa edo langile finkoa bada, aurreko paragrafoaren irizpideen arabera, beste lanpostu batera lekualdatua izango da, hala balegokio.

11. LANGILE-ERREGISTROAREN FITXATEGIAREN ALDAKETA.

Lanpostu horietakoren bati lotuta dagoen edo lan-poltsan sartzen den pertsonalaren aitorten arduratsua, baimena sartzen duena, edo ziurtagiri negatiboa pertsona horren pertsonalaren erregistroa edo poltsak kudeatzeko sistemara gehituko dira.

Abenduaren 11ko 1110/2015 errege dekretuak, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean arautzen duenak, 9.2. artikuluan xedatutakoaren arabera emango da Erregistroan, aitorten arduratsua aurkeztu duten pertsonak direla-eta, agertzen diren datuei buruzko informazioa.

Ziurtagiri positiboa edo sententzi irmoa jasota geratuko da pertsona horren pertsonal-erregistroan eta exijitzeko moduko segurtasun-neurriak hartuko dira kontuan, datu pertsonalak babesteko lege organikoak xedatutakoaren arabera.

12. ATZERRIKO HERRITARRAK

Atzerriko herritarrek, edo, espainola ez ezik, beste nazionalitate bat ere dutenek, aitorten arduratsu bat, behar den organoak datuak Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsultatzeko berariazko baimena sartzen duena, aurkeztu beharko dute eta, gainera, jatorriko herrialdean edo nazionalitatea duten horretan aurrekari penalak ez izatearen ziurtagiri bat erakutsi beharko dute, nazioarteko hitzarmenen arabera itzulia eta legeztatua, adin txikikoa juridikoki babestearen urtarilaren 15eko 1/1996 lege organikoak, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren legea partzialki aldatzen dituenak, 13.5. artikuluan aipatzen dituen delituei begira.

13. BESTE HIRUGARREN BATZUEK EMANDAKO ZERBITZUAK.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, haien zerbitzu edo prestazioek adin txikikoekin ohiko harremana izatea dakarten hirugarrenekin kontratazioak egiten baditu, lan horiek egin behar dituen pertsonal guztiak, berezkoak edo azpikontratatuak, argibide honen 13.5. artikuluan exijitzen den ziurtagiri negatiboa duela egiaztatzeko aitorten arduratsua aurkeztea exijituko dio kontratatutako erakundeari.

Exijentzia hori administrazio-klausula partikularren pleguen eruedetara eta Ondare Zuzendaritza Nagusiak egindako kontratu-eruedetara gehituko da.



Halaber, instituzio horiek adin txikikoekin ohiko harremana izatea dakarten funtzioetan aritzeko, guztiz edo zati batean, diru-laguntzak tramitatzen badituzte, lan horiek egin behar dituen pertsonalak argibide honen 13.5. artikuluan exijitutako ziurtagiri negatiboa duela egiaztatzeko aitopen arduratsua aurkeztea exijituko diote diru-laguntza eskatzen duen pertsonari edo erakundeari. Exijentzia horrek diru-laguntzak deitzen dituzten aginduetan agertu beharko du.

14. ONDORIOAK

Izenpetu eta hurrengo egunean izango ditu argibide honek ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko ekainaren 21ean



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OLATZ GARAMENDI LANDA
VICECONSEJERA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS / ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN
SAILBURUORDEA

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURAREN ARLOAN
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

I. ERANSKINA

AITORPEN ARDURATSUA, ADIN TXIKIKOAREN BABES JURIDIKOAREN URTARRILAREN 15eko 1/1996 LEGE ORGANIKOAREN 13.5. ARTIKULUA BETETZEARI BURUZKOA, ETA SEXU DELITUGILEEN ERREGISTRO ZENTRALAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO BAIMENA

1.- DATU PERTSONALAK

NIF / NIE / PASAPORTEA

JAIOTZEGUNA

2.- AITORPENA ETA BAIMENA

Behean sinatzen duanak adierazten du ez dutela kondenatu epai irmo baten bidez espetxe-zigorrekin Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak -Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea hein batean aldatzen dituenak- 13.5 artikuluan aipatzen dituen sexu-askatasun eta ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari ematen dio, beharrezko datu-baseak kontsultatzeko haren izenean, 1/1996 lege organikoaren 13.5. artikuluan aipatzen den ziurtagiria eskatzeko, adingabeekiko ohiko harremanak izatea eskatzen duten zerbitzuak ematen ari den bitartean edo jarduera hori hasten duenean.

Ez du baimenik ematen.

Baimena ematen ez badu, Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria aurkeztu beharko du, ziurtagiri hori eskatu ahalako baitu langilea bere mendeko zentro publikoetan adingabeekin ohiko harremanak izatea eskatzen duten zerbitzuak ematen ari den bitartean.

.....(e)n,(e)ko.....aren.....(e)(a)n

Sinadura

Abenduaren 13ko 15/1999 legeak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, xedatutakoa betez, hau jakinarazten dizugu: agiri /inprimaki /formulario hau betez lortutako datuak eta gaineratzen diren gainontzeak fitxategi batera sartuko dira, tratatzeko. Halaber, datu horien bilketak eta tratamenduak Adin Juridikoa Babestearen lege organikoak 13.5. artikuluan xedatzen duena betetzea dutela helburu jakinarazten dizugu. Lege organiko horretan xedatutakoaren arabera, datuetara sartzeko eta beroriek zuzentzeko, ixteko eta aurkatzeko eskubidea izango duzu eta, horretarako, idazki bat bidali beharko dizu pertsonalaren arloan eskuduntzak dituen organoari.